



LEHIAKETA ETA KONTSULTA IREKIA: IZENA ETA IRUDI KORPORATIBOA ERREBALEKO ERABILERA ANITZEKO GUNERAKO

Eibarko Udalak lehiaketa eta kontsulta irekia prestatu du Errebaleko erabilera anitzeko guneari izena eta irudi korporatiboa emateko.

1.- LEHIAKETA

Lehiaketan parte hartzeko oinarriak honako hauek dira:

1. Xedea:

Lehiaketaren xedea da Errebaleko erabilera anitzeko gune berriaren izena eta irudi korporatiboa aukeratzea.

Izenak eta irudi korporatiboak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Ez izatea hizkuntza edo irudi sexista edo iraingarririk.
- Ez erabiltzea emakumeen irudi diskriminatzailek edo estereotipo sexistarik.
- Berdintasuna, dibertsitatea, aniztasuna... Horrelako balioak errespetatzea.
- Euskarazko izena aukeratuko da.
- Ezingo da izen edo lelo komertzialik erabili eta irudia edo izena ezingo dira inskribaturik egon jabetza intelektualaren erregistroan.

2. Parte-hartzaileak:

Lehiaketa Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleek (LH 5 eta 6) eta Arte Batxilergoko ikasleek (Eibarko Ignacio Zuloaga Institutua eta La Salle Azitain) hartuko dute parte.

3. Lehiaketaren ezaugarriak:

Lehiaketan parte hartzen duen Eibarko Lehen Hezkuntzako ikastetxeek izan bana aukeratuko dute Errebaleko erabilera anitzeko gunerako.

Irudi korporatiboa egiteko ardura Eibarko Ignacio Zuloaga Institutuko eta La Salle Azitaineko Arte Batxilergoko ikasleek izango dute.

Izena emateko epea bukatu ondoren, Udalak zenbat ikastetxe inskribatu diren ikusiko du eta ikastetxe bakoitzari Ignacio Zuloaga Institutuko edota La Salle Azitaineko Arte Batxilergoko lantalde bat esleituko dio. Honela, irudi korporatiboa lankidetzan landuko dute Lehen Hezkuntzako ikastetxearekin batera aukeratutako izenaren izaerari jarraituz.

Lehen Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeek elkarrekin jardungo dute lanean; beraz, bi maila horiek dituzten ikastetxeek ezingo dituzte zeregin biak bere gain hartu, hau da, izenaren proposamena eta irudi korporatiboa lantzea. Ikastetxeen elkarlan horrek ikastetxe ezberdinen arteko harremana eta trukea sustatzea du helburu.



4. Izena ematea:

Lehiaketan parte hartu nahi duten Lehen Hezkuntzako ikastetxeek 2017ko 11tik 29ra eman beharko dute izena (13:30ak baino lehen). Ikastetxearen zuzendariak egingo du izen-ematea.

Izena emateko bideak:

- Izen-emate elektronikoa (IZENPE txartelarekin edo NANA): www.eibar.eus
- Aurrez aurre PEGORAn, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

5. Proiektuak landu eta aurkeztea:

1. **Informazioa emateko bilera:** Lehen Hezkuntzako ikastetxe bakoitzak 4-5 ordezkari izendatuko ditu udal arkitekto andreak eta Eibarko Udaleko Obretako sailaren arduradunak Errebaleko proiektuari buruz emango duten zuzeneko informazioa jasotzeko; Horretarako, 2017ko urriaren lehen astean, 2 bilera antolatuko dira ordutegi desberdinetan. Era horretan, ikastetxeak ondoen datorkien bilerara joan ahalko dira. Udalak lehiaketan parte hartzen duten ikastetxe guztiei jakinaraziko die zer egunetan eta zer ordutan diren informazio-bilerak. Halaber, Udalak ikastetxe bakoitzari jakinaraziko dio zer lantalde egokitu zaion irudi korporatiboa lantzeko.
2. **Izena aukeratzea Errebaleko erabilera anitzeko gunerako:** Lehen Hezkuntzako ikastetxeek 2017ko azaroaren 17rako erabaki beharko dute zer izen proposatu Errebaleko erabilera anitzeko gunerako.
3. **Irudi korporatiboa lantzea:** irudi korporatiboa egiteko, Lehen Hezkuntzako ikastetxeak — behin izena erabakia dutela— harremanetan jarriko dira egokitu zaien Ignacio Zuloaga Institutuko eta La Salle Azitaineko Arte Batxilergoko lantaldearekin.

Irudi korporatiboaren proposamenak honako elementu hauek izan beharko ditu:

- **Logotipoa paper-formatuan:** logotipoa eta haren aldaerak hondo zuria duen euskarri gogorrean (luma-kartoa, foam...) muntatuta eta ondo babestuta egon beharko dira, DIN A4 tamainan.
- **Logotipoa formatu digitalean:** bertsio ezberdinak (logotipoa koloretan, grisen eskalan, edo zuri-beltzean) eta haren aldaerak bektore-formatuan nahiz bits-mapa formatuan aurkeztuko dira, kode irekiko diseinu-programekin manipulatu ahal izateko; hori dela eta, ahal dela formatu estandarrak erabiliko dira (JPEG, SVG, etab.). **Euskarri digitala (CD, DVD, pendrive, etab.) entregatuko da lehiaketaren izenarekin eta Errebaleko gunerako proposatutako izenarekin.**
- **Logotipoaren memoria:** obraren sorrera eta esanahia azaltzen edo ulertzen laguntzen duten elementu guztiak jasoko ditu: proposatutako logotipoaren izaera bisualeko oinarritzko elementuak, hau da, neurrien arteko erlazioa eta elementuen arteko egoera, koloreak eta grisen eskalako edo zuri-beltzeko bertsioa.
- **Irudi korporatiboaren oinarritzko eskuliburua:** tipografia, koloreak ohiko nomenklaturaren arabera, neurrien arteko erlazioa eta elementuen arteko egoera.



- **Proposamena paperean aplikatzeko adibideak:** (gutunak, dokumentuak, gutunazalak, bisita-txartelak...), idatzizko prentsan, esku-orrietan eta argitalpenetan, merchandising-ean eta oinarrizko kanpo- eta barne-seinalizazioan, eta abarretan (adibide batzuekin nahikoa izango da).

4. **Irudi korporatiboaren proposamena aurkeztea: Lehen Hezkuntzako** ikastetxeek 2018ko martxoaren 16an (14:30ak baino lehen) entregatu beharko dute aurreko atalean adierazitako elementuak jasotzen dituen irudi korporatiboaren proposamena. Proiektuak aurrez aurre aurkeztuko dira PEGORAn, Herritarren Zerbitzurako Bulegoan.

6. Lanen originaltasuna eta jabetza-eskubideak:

Lan guztiak originalak izango dira. Ezingo dira erabili osorik edo zati batean hirugarren pertsonenak diren lanak. Argazkiak erabiliz gero, horiek ere taldeak eginak izango dira; hirugarrenen irudiak aurkezten badira, aurkezten dituztenen ardurapean izango da.

Lehiaketaren irabazleak Eibarko Udalari lagatzen dizkio lehiaketan aurkeztutako lanari buruzko eskubide guztiak. Beraz, grafikoari eta izenari dagokionez, Eibarko Udala izango da legezkiokkeen jabetza industrial zein intelektualaren eskubide guztien jabe, edo legezkiokkeen beste gainerako edozeinena, eta baita haren copyright eskubidearena ere.

Era berean, Udalaren esku lagako ditu manipulatzeko, editatzeko, erakusteko eta erreproduzitzeko eskubideak.

Irabazleek erantzukizun osoa hartuko dute beren gain sor daitekeen edozein eratako erreklamazioen aurrean, edo aurkeztutako lanen originaltasunari, antzekotasunei edo kopia partzialei buruz hirugarrenek egin diezazkieketen erreklamazioen aurrean.

7. Proiektuen erakusketa:

Aurkeztutako proiektu guztiak Eibarko udaletxeko patioan egongo dira erakusgai 2018ko apirilaren 23tik 30era (biak barne).

8. Parte hartzeko gutxienerako kopurua:

Lehiaketa martxan jartzeko, izena eman duten **Lehen Hezkuntzako 3 ikastetxe** beharrezko izango dira gutxienez. Gutxienerako kopuru hori lortuko ez balitz, ez da lehiaketarik egingo.

2.- HERRI GALDEKETA IREKIA

Herri-galdeketa irekia egingo da aurkeztutako proiektuen inguruan.

1.- Boto-emaileak:

2018ko martxoaren 31n, 16 urte edo gehiago izan eta Eibarren erroldatuta daudenek botoa eman ahalko dute.

Pertsonako boto bat bakarrik onartuko da.



Herritarren parte-hartzea sustatzeko sariak zozkatuko dira botoa ematera hurbiltzen direnen artean.

2.- Bozketa:

Bozketa aurkeztutako lanen erakusketaren garai berean egingo da, hau da, 2018ko apirilaren 23tik 30era.

Bozketa aurrez aurre egingo da PEGORAn, Herritarren Zerbitzurako Bulegoan eta bulegoa zabalik dagoen ordutegian.

Botoa ematen den une beran egiaztatuko da boto-emaileak lehen puntuari adierazitako baldintzak betetzen dituela.

3.- Botoen kontaketa:

Boto-kontaketa ekitaldi publikoan egingo da batzar-aretoan maiatzaren lehen astean, garaiz adieraziko den egun eta orduan.

Honako hauek osatuko dute botoak zenbatuko dituen mahaia:

- Alkatea edo hark izendatzen duen zinegotzia.
- Arte Batxilergoa ematen duten ikastetxeetako zuzendariak.
- Udal idazkaria.

4.- Bozketaren emaitza argitaratzea:

Bozketaren emaitzak www.eibar.eus udalaren web-orrian argitaratuko dira, hautestontzia ireki eta hurrengo egunean.

5.- Hautestontziaren zaintza:

Hautestontziak Udaltzaingoaren bulegoetan zainduko dira, Pegorako bulegoa itxita dagoen ordutegian.

3.- SARIAK

Baldin eta lehiaketan izen-emandako Lehen Hezkuntzako ikastetxe kopuru gutxienekoa betetzen bada, ikastetxe bakoitzak gehienez ere 300 euroan baloratutako sari bat jasoko du, lehiaketaren ikastetxe irabazleak izan ezik. Ez da saririk emango eskudirutan. Saria ikastetxe bakoitzak behar duena elementuren bat edo gehiago erosteko izango da, aurreikusitako zenbatekoa gainditu gabe.

Lehiaketaren ikastetxe irabazleak:

1. **Lehen Hezkuntzako ikastetxeak** gehienez ere 2.000 euroan baloratutako saria jasoko du. Saria ez zaio eskudirutan emango; ikastetxeko ekipamendua hobetzeko erabiliko du (kirol-instalazioa, teknologia, musika-tresnak...).
2. **Batxilergoko ikastetxeak** gehienez ere 3.000 euroan baloratutako saria jasoko du. Saria ez zio eskudirutan emango; ikastetxeko ekipamendua hobetzeko erabiliko du (kirol-instalazioa, teknologia, musika-tresnak...).



Baldin eta boto kopuru gehien lortzen duten proposamenak bat baino gehiago badira, sariak hainbanatu egingo dira.

4.- IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA ETA OINARRIEN ONARPENA.

Lehiaketan izena-emateko eskaera aurkeztearekin bat, Lehen Hezkuntzako ikastetxeak adierazten du onartu egiten dituela oinarri hauek eta baita herri-galdeketa erabakia ere.

Era berean, adierazten du izena-ematean jasotako Datu Pertsonalak bere baietzarekin jasotzen direla eta onartzen duela datu horiei tratamendu automatizatua ematea. Halaber, onartzen du datuok Eibarko Udalarenak diren eta behar bezala baimenduta dauden fitxategietan jasotzea, eta baimena ematen du datu horien erabilera soil-soilik udal kudeaketara mugatzeko. Hala ere, datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei helaraz edo laga liezazkieke.

5.- IZENA ETA IRUDI KORPORATIBOA ONARTZEA

Udalak onartu beharko ditu Errebaleko erabilera anitzeko gunearen izena eta irudi korporatiboa.

Udalaren erabakia herri-galdeketa erabakitzarekin bat ez baletor, espreski azaldu beharko ditu akordio hori hartu izanaren arrazoiak.